

# ek!

**eta kitto!**  
euskara elkarteak

2023ko apirilak 14 · 1266 zenbakia



## SASOI ZAIENETAN MUSIKA HELDULEKU



**Etxe**ko aseguruak  
estimatzen duguna  
babesten du.  
Altzariak,  
elektrodomestikoak,  
arropa, balio  
handiko gauzak...  
Sartu eta azalduko  
dizugu!

**ETXE  
ASEGURUA**

**EUKi**  
ASEGURUAK

Euki-n zure etxearen  
neurriko babes onena  
eskaintzen dizugu

INFORMAZIO GEHIAGO: [eukiseguros.com](http://eukiseguros.com)



# osasun gida

## Dentistak

**Odontologia  
Biologikoa**

**Miren Albistegi Sojo**

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52  
malbistegi@gmail.com



**GASTESI  
Hortz-Klinika**

Errebal, 9-1. C  
943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentziakoa / PADI  
Otodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

## Fisioterapeutak



**ANE MENDIA**  
970 kalea 10.a  
- INDIATERAPIA  
- KIBRA LENTZAK  
- Puntzio orra TEJURENDEAK  
- A-muscle + DEFORMAZIOA  
**ARRAGUETA, 20**  
Tel: 943 53 06 42  
ane.mendia@hotmail.com



**arat.**  
DENTISTAS  
**ZURE  
IRIBARRE  
ONENA**

Forbio Etxebarria Kalea, 4  
20600 Eibar  
943 201 851  
www.aratklinika.com



**IRAZABAL**  
clinica dental

**Iribarreetan adituak**  
ESPEZIALITATE GUZTIAK.

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Thoa, 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

## Ginekologia

**Dra. Laura  
Martinez**  **Dr. Alejandro  
Recas**

**GINECOLOGÍA  
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D  
dr.recas@gmail.com  
dra.martinezgallardo@gmail.com  
www.ginecologiaeibar.com



**Maitane G. Iñiguez**  
Odontologian Lizentziatua  
943 537 076

San Agustín Kalea, 4 beheko eskuina  
20600 Eibar (Ipiruakoa)  
943 537 076 - 688 884 808  
info@eibarclinicadental.com

**MIGUEL SEMINARIO  
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

**Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896**



**Unzaga Plaza**  
Hortz Klinika - Clínica Dental

**M. Orozco Ventura doktorea**  
Unzaga plaza 5, 4º I, Eibar  
Tel.: 943 70 23 85



**P. Echeverria  
A. Esnaola**

Hortz klinika - Clínica dental  
Fermín Calbetón 19-3. esp., EIBAR  
943 20 72 17 - 660 422 808  
@egudent



**943-206776**

# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Markos Untzeta musikari eibartarrak 'Ekilibrista' diskoa kaleratu du eta hilaren 21ean kontzertua eskainiko du Coliseo antzokian, herrikideen aurrean. Untzetaren seigarren diskoa da 'Ekilibrista' eta, bere ohiko estiloari jarraituz, musika eskaintzen du helduleku bizitzari oreka eskaintzeko.



#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

kunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Yolanda Eizagirre

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Eskutitzak



### Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

**Erredakzioa**

## Astean esanak



- Europak azken 25 urteotan ekoizteari utzi dion gas kopurua epe horretan Errusiatik inportatu duen bera da, eta CO2 murrizketen zati handi bat industria kutsagarriak munduko beste herrialde batzuetara bidaliz lortu du. Eta berdin dio CO2-a Abadiñon edo Shanghain ekoizten den, kalte bera egiten digu.

- Jendeak ez du erosten auto berria, garbiagoa izango dena. Zalantza du, eta horrek ez dio mesederik egiten trantsizioari. Gainera, autogileak ikusten badu 2035ean motor jakin bat ekoizteari utzi beharko diola, ez du hura nola hobetu ikertuko.

- Mugikortasuna ezin daiteke elektrikoa bakarrik izan. Hori aberatsentzat da. Herri honetako autoen %70ek kalean igarotzen dute gaua. Horien jabeak argindar sarredun garajea ordaintzera beharko ditugu?

**JOSU JON IMAZ, Repsoleko kontseilari ordezkaria**

Franco hil eta gero, Oskorriren lehenengoko abestiak Alcorconeko estudio batean grabatu genituen, hemen ez genuelako halako aukerarik. Ondo gogoan dut aldameneko estudioan Lola Flores zegoela Lolita bere alabari abesten erakusten, eta beste aldekoan orkestra haundi bat osatu zutela Espainiako himno berria grabatzeko. Guk gurean Gabriel Arestiren bertsoekin genbiltzan “Gora ta gora beti!”, “Guretzat” edo “Emazuriz” lantzen.

**BIXENTE MARTINEZ, musikaria**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**ONGI** → Ondo. Ez da bakarrik erabiltzen, gehienetan ‘ongi etorri’ erako esaldietan. “ongi etorri guztiok”.

**ONGIETORRI** → Norbaiti egiten zaion harrera ona. “Sekulako ongietorrixakin errezipidu eban”.



Idurre Iriondo

## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 14</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>ZAPATUA 15</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>DOMEKA 16</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>ASTELEHENA 17</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>MARTITZENA 18</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUAZTENA 19</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>EGUENA 20</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>BARIXAKUA 21</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustín, 5)
<b>GAUEZ BETI, 2023an,</b> <b>Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udalzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Hildakoak

- Ines Murillo Sanchez. 2023-03-31.
- Victoria Gisasola Txurruka. 99 urte. 2023-04-02.
- Ageda Arribabalo Etxebarria. 95 urte. 2023-04-02.
- Miguel A. Fernandez Hernandez. 54 urte. 2023-04-03.
- Edith Beristain Manzisidor. 86 urte. 2023-04-04.
- Isabel Egurrola Marzo. 69 urte. 2023-04-05.
- J. Luis Egiguren Agirregomezkorta. 85 urte. 2023-04-06.
- Tomas Laskurain Unzetabarrene. 95 urte. 2023-04-07.
- Enrique Leturiondo Lucena. 49 urte. 2023-04-07.
- Antxon Rodriguez Garai. 72 urte. 2023-04-08.
- Gregorio Agirre Belaustegi. 101 urte. 2023-04-08.

## Jaiotakoak

- Ines Belbachir Lamas. 2023-03-06.
- Julen Mas Agirrebeña. 2023-03-19.
- Ramata Seye. 2023-03-26.
- Iria Martin Elkoro. 2023-03-28.
- Telmo Mujika Sarrionandia. 2023-03-02.
- Liam Salas Santos. 2023-03-02.
- June De la Fuente Del Egido. 2023-03-02.
- Jon Betondo Azpeitia. 2023-03-03.



## Eibar “governatzeko prest” dagoen taldea aurkeztu du EH Bilduk hauteskundeetarako

Arantza Mata alkategai izendatu ondoren, EH Bilduk “Eibargobernatzeko prest dagoen taldea” aurkeztu du, euren berbetan. “Arantza Matak gidatzen duen taldeak jarraipena eman nahi dio orain arte egindako lan handiari”, alderdiak dioen bezala eta, horretarako, zenbait berritasun aurkeztu ditu zerrendan. Izaera sozialeko eta kudeatzeko gaitasuna duen taldea aurkezten duela dio EH Bilduk, eta hain zuzen ere Arantza Matak irudikatzen ditu ezaugarri horiek, alderdiaren arabera. Ma-

tak kirol eta hezkuntza munduan egin du bere ibilbide profesionala. Izan ere, 16 urtez foballaria izan zen, hainbat sari jasoz; eta bestetik, Plaentxi HLHI eskolako ikasketazuzendaria izan da. Mataren berbetan, “demaseko taldea dut alboan. Harro egoteko moduko taldea da, gaitasuna duena, konprometitua eta langilea. Horrela, eibartarron ongizatea bilatu nahi dugu”. Azken zortzi urteotan taldearen zinegotzia izan den Gorka Errasti da zerrendan bigarren doana.

## Fruta-dendetan organikoaren bilketa hobetzeko kanpaina berria martxan

Debarrena eskualdeko Mankomunitateak 75 fruta-denda bisitatu ditu, haien birziklapen-ohiturak ezagutu eta hobetzeko helburuarekin.

Jasotako datuen arabera, Debarreneko fruta-dendek gaikako bilketa modu egokian egin ahal izateko edukiontzi berrien beharra dutela ikusi dute. Bisitak egin on-

doren, honako beharrak antzeman ditu Mankomunitateak. Batetik, fruta-dendetatik hamarrek eskatu dituzte hondakin organikoak gaika biltzeko edukiontzi berriak, gehienek 50 litroko edukierakoak; beste hiruk edukiontzi hori berriak eskatu dituzte, eta beste batek, berriz, papera eta kartoia birziklatzeko edukiontzi berria.

## Datorren eguaztenean hasiko dira Sanjuanetako Danborradetarako entseguak

Datorren astean hasiko dira 2023ko Sanjuanetako Danborradetarako entseguak, antolatzaileek jakinarazi dutenez: umeen danborradetarako lehen entsegua eguaztenean, apirilaren 19an egingo dute, 19:00an; eta helduen entseguak, berriz, apirilaren 26an hasiko dira, 20:00etan. Betiko tokian, Bittor Sarasketa kalean dagoen Beistegi eraikinean izango dira. Behin hasita, astero egingo dute entsegua, lehenengo umeek eta ondoren nagusiek, jaiaik ailegatu bitartean.



## Errepublikaren aldeko martxa egingo da bihar, Ermua eta Eibar artean

Urtero bezala, PCE-EPK Euskadiko alderdi komunistak Ermutik Eibarrera bitarteko martxa antolatuko du, II. Errepublika gogoan. “Errepublika martxan” goiburuarri jarraituta, bihar 10:00etan abiatuko dira, Ermuko Orbe Kardinaren plazatik, Untzagaraino oinez etortzeko. 12:00etan, berriz, Txaltxa Zelako auditorioan bandera igo eta ekitaldi politikoa egingo dute, IU- Ezker Anitzarekin batera.



## Saharako haurrentzako harrera familiak behar dira udarako

Oporrak Bakean programan izena emateko epea zabalik da apirilaren 23ra arte. Haur sahararrak uda pasatzera etorriko dira Euskal Herriko familietara, ekaina amaieratik abuztu amaierara. Eibar-Sahara elkartetik azaldu dutenez, “ondo elikatu eta mediku-errebisioak egiteko aukera ematez gain, gure naturaz, kulturaz, hizkuntzaz... disfrutatzeke aukera ematen die programak”. Beraz, Eibarko familiak animatu nahi dituzte, “beste behin ere haur sahararak gure artera ekartzeko”. Informazio gehiago: [www.oporrakbakean.eus](http://www.oporrakbakean.eus).

## Atzerritartasun arautegiari buruzko hitzaldi irekia egingo da eguaztenean

Udaleko Kultura Aniztasun eta Immigrazio Unitateak, Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta Biltzen Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren euskal Zerbitzuarekin batera, immigrazio araudiari buruzko saio informatiboa antolatu du datorren asterako. Saioa eguaztenean (apirilak 19) izango da Portalean, 17:30ean, eta egoitza erregulatzen duen araudia aztertuko da. Antolatzaileek azaldu dutenez, Biltzen zerbitzuko abokatu batek honako

hauek azalduko ditu hitzaldian: egoitza-baimenak, lan- eta bizileku-baimenak eta epe luzeko baimenak lortzeko prozedurak eta baldintzak; errotzeak; baimen horien berritzeak; senideak berriz elkartzeko aukerak; eta atzerritartasunaren araubide komunitarioa. Sarrera irekia izango da eta, beraz, herritar guztiak izango dute parte hartzeko aukera, “konkretuki, saioa atzerritarrei nahiz atzerritarrekin harremanetan dauden eta informazioa behar duten pertsonen zuzenduta egonda ere”.



Urtzi Antxustegi (688 649 837)  
 09:30 – 19:00  
**garbibox**  
 EROSKI-n **eco** auto-gorbiketak  
 limpieza • zerbitzua

**ZERBITZU BERRIAK:** sabai edo tebu-konponketak, tapizatu-konponketak, etxeko garbiketak une zehatzetan...

**San Andres Gozologia**

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28  
 ☎ 943 20 79 73

**FUNEUSKADI**  
 Small Address

**FUNERARIA MUGICA**  
 Funeraria

TANATORIO EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Eibar: Otaola, 27  
 Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20

Elgoibar: Kixillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Clasako Ilerriaren ondoan)  
 Ermuako bulegoa: Marqués de Valdeospina, 16

Eibar • Elgoibar • Ermua • Bilbo • Barakaldo • Leioa • Getxo • Sestao  
 Portugalete • Santurtzi • Basauri • Galdakao



## Hasi dira Ego Gain kalea eta bertako autobus geltokia hobetzeko lanak

Aste honetan hasi dira Egogain inguru osoa berrantolatzeke eta berrurbanizatzeko lanak eta martitzenean azaldu zituen proiektuaren nondik norakoak Jon Iraola alkateak, baita lanek inguru horretako jardueran izango duten eragina eta autobus lineen mugimenduan eragingo dituzten aldaketak ere. Esandakoari jarraituz, proiektuak gaur egungo geltokirako hobekuntzak jasotzen ditu. Lanen kostua 48.398 eurokoa da (BEZa barne) eta host bat asteko iraupena izango dute. Astelehenean

hasi ziren lanean eta, obra amaitu arte, Egogain inguruan ibiltzea “deserosoa” izango dela aurreratu dute. Autobus gehienak ere bertatik irten eta bertara ailegatuko dira, baina hainbat lineatan aldaketak egongo dira astelehenetik aurrera: Eibar-Arrasate-Vitoria-Gasteiz, Eibar-Vitoria-Gasteiz (urtegitik), Eibar-Arrasate eta Eibar-Bergara-Arrasate-Eskoriatza lineak Untzaga plazako geltokitik irtengo dira, eta ez Egogainetik. Eta linea horien amaiera, Eibarrera ailegatzean, San Juan kaleko geltokian izango da.

## Ipuruako kanpoko igerilekuen tabernaren ustiapena lizitaziora atera dute

Udalak lizitaziora atera du kanpoko igerilekuen tabernaren ustiapena. Kontratua eskuratu nahi dutenek apirilaren 21era arteko epea dute proposamenak egin eta eskaintza ekonomikoa aurkezteko. Eskuratzen duenak ekainaren 10etik irailaren 10era bitartean zabaldu beharko du taberna. Eskaerak Pegoran edo posta bidez aurkeztu daitezke, proposamena Udaleko Kontratazio eta Dirula-

guntoa Unitatera bidalita. Bi gutun-azal aurkeztu beharko dira: lehenengoan baldintza-orrian eskatutako dokumentazioa sartu behar da, eta bigarrenan eskaintza ekonomikoa. Emakida lehiaketa bidez adjudikatuko da eta 1.000 eurotan finkatu da lizitazioaren gehiago eskatzeko edo taberna ikusteko, Ipurua kiroldagiko bulegoetara deitu (943203240).

## Errenta aitortpena euskaraz egitera animatzeko kanpaina abiatu dute

“Errenta aitortpena? Aurten ere, duda barik, EUSKARAZ!” leloarekin abiatu du aurten ere kanpaina Eibarren AKEBAIk, Udalaren babesarekin. Horrela, euskaraz bizi nahi duten herritarrei errenta aitortpena euskaraz egiteko gonbitea egin nahi zaie. “Azken urteetan handituz joan da Foru Ogasunarekin harremanetan euskara hautatu duten eibartar kopurua, baina hobetzeko tarte handia dago oraindik”, adierazi dute. Gipuzkoako Foru Aldundiak lau urteko egitasmoa abiarazi zuen orain dela hiru urte, Ogasunarekin euskaraz egitea aukeratu duten gipuzkoarren kopurua 100.000 lagunera iristeko helburuarekin: “Eibarren, berriz, 1.700eko langa gainditu nahi da aurten. Erronka hori lortzea gizarteak hizkuntza berdintasunaren alde egindako ahaleginaren saria litzateke”, diote Akebaitek. Gipuzkoako Ogasunarekin harremana euskaraz izateko argibideak eta Errenta kanpainari buruzko beste informazio guztia Interneten kontsultatu daiteke, [www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna](http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna) helbidean.







## Txoriak ikustera joateko irteera antolatu du Eibarko Baso Biziak taldeak

Eibarko Baso Biziak-ek hegaztiak behatzeko irteera antolatu du apirilaren 23rako: “Asier Sarasuaren laguntzarekin hegaztiak behatzeko ibilbidea egingo dugu. 09:00etan irtengo gara Urkizutik, Ixuarantz, eta Urkoko maldatik behera jaitsiko gara berriz Eibarrera. Prismaticoak eramatea ezinbestekotzat jotzen dugu. Mugikorreko aplikazioren bat ere deskargatzea aholkatzen da (eBird, Merlin, Naturalist)”.



## Trenbidean gauzez egiten ari diren lanekin haserre daude bizilagunak

Apirilean zehar Euskal Trenbide Sareak Estaziñoko eta Azitaingo tren geltokien arteko tartean hainbat lan egin beharko dituela jakinarazi dute Udaletik: “Hori dela eta, trenen ibilbideari ahalik eta gutxien eragitearren, lanok gaueko ordutegian egingo dira, 23:00tik 06:00etara, jaiegunetan izan ezik”.

Hala ere, lanak hasi eta berehala hasi dira inguruan bizi direnen keak, lanen zaratarengatik. Besteak beste, Lurperatzen gaituen paseoari ez-Ekialdea bai Elkartek bideoan grabatu ditu gauzez egiten ari diren lanak, eta sare sozialen bitartez zabaldu ditu irudiak, lanen eragina jende guztiak ikusteko.



# AURREMATRIKULA

## ALDATZE BATXILERGOA



Martxoaren 27tik  
Apirilaren 21era

Nahi bezain urrun  
iristeko aukera



Prebidentzia Andra Mari - Aldatze Ikastetxea  
 Aldatze kalea, 5 - 20600 Eibar  
 943 70 11 30 - aldatze@aldatze.org - www.aldatze.eus





Aldatze ikastetxeko ikasle talde bat, mojekin. EGOIBARRA.

Errepublika ezarri aurretik, nolako uniformeak erabiltzen zuten Aldatzen. Errepublikarekin batera, mojak seglar jantzen hasi ziren eta umeak ere kaleko erropekin joaten ziren. Gerra ostean, umeek berriz jantzi zuten uniformeak eta mojek abituak. Gerra ondorengo urteetan uniformeak zelakoa zen.

## Aldatze ikastetxea Errepublika garaian

**Juana Zugasti Bilbao**  
(1923)



1923an jaiotakoa. 9 urterekin, Aldatzera joan zen ikastera. 1948an, 24 urterekin, moja sartu eta hasiera batean Frantziara joan zen, Kongregaziora. Bueltatu zenean, lehenengo Basauri eta gero Igorrera bidali zuten klaseak ematera. Eibarren zazpi urte egin bazituen ere, azkenik Igorrera itzuli zen.

**Juana Zugastiri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa**

[Eta uniformerik edo bazekazuen?] Ez, nere penia horixe izan zan. Ba, denporan, Republika baiño lehenagokoak, uniformeak eukin, ta gero con una banda blanca... Ta ni... zenbat gustatzen jatan! Ta gu heldu giñanian, ba mojak kendu egin eben dana. Iñork ez zetsen agindu, hori nik holan entzunda dekot. Baina eurak gura izan eben, de seglar ipiñi ziren, mojak de seglar, eta ikasleak be, ba, betiko erropegaz, etxeko erropegaz. Ta holaxe. (...) Gero atzera ipiñi zan uniformea, gerra ostian. Ba, Franco denporan, gero atzera ipiñi zan uniformea, ta mojak be moja jantzita ta hola. [Ta zelakua izan zan gero uniformia?] Gero uniformea izan zan apurtxo bat ba..., más moderno, zelan esango genduke? Orduko egoerakoak. Ta gero pitxi be bai, de pitxi, ta holakuak...



1915. urte inguruko argazkian, Eibarren sozialismoa sartzten eta indartzen garrantzi berezia izan zuten aurreneko sozialistak daude, besteak beste, Marcelino Baskaran, Jose Gisasola eta Akilino Amuategi. EGO IBARRA

## Eibarko elkarte sozialistaren 125 urteak dokumental bihurtuta

Aurten betetzen dira 125 urte Eibarko Elkarte Sozialista sortu zela eta, hori ospatzeko, Eibarko PSE-EEk programazio berezia prestatu du, Ramon Rubial Fundazioarekin batera. Otsailaz geroztik, Eibarko Herriaren Etxean Eibarko sozialismoaren hastapenak nolakoak izan ziren gogoratzeko erakusketa bisitatu daiteke. Eta egunean Eibarko sozialismoaren historiari eskainitako dokumentala estreinatuko da.

Fundazioaren esku dauden aintzina argazki ugari ikus daitezke erakusketan eta, horrekin batera, elkarteak 125 urte hauetan bete duen ibilbideari buruzko azalpenak laburbildu dituzte, argazkiei laguntzeko. Erakusketa horren inaugurazioan aurreratu zuten, asmo berarekin landutako dokumentala prestatu dute: “Eibarko Elkarte Sozialistaren 125 urteak” izeneko lana datorren astean, egunean (apirilak 20) estreinatuko

da, 19:00etan Armeria Eskolan, herritar guztiei zabalik egingo duten emanaldian.

### Eibarko sozialismoaren ezaugarri bereziak

Jesus Eguigurenek “El solialismo y la izquierda vasca 1886-1994” liburuan dienez, Tolosa eta Donostian lehenengo elkarte sozialistek sei urte besterik ez zituztenean sortu zen Eibarko Elkarte Sozialista indar handiz, 1897.urtean. Afiliatu

ugari izan zituen hasieratik eta horiek ahalbidetu zuten herriko langile mugimendua kontrolatzea. Sortu eta berehala, 1901ean, Eibar-ko elkarteak bazuen bere prentsa organo propioa, “¡Adelante!” izenekoa. Eta bi urte geroago, 1903an, udal ordezkari lortu zuen aurreneko aldiz. Horrela, elkartearen prestigioa Euskadi mailan ez ezik Espainia mailan ere zabaldu zen. Eibarko sozialismoak, gainerakoek ez beste ezaugarri batzuek zituen. Gizarte borrokak nahiko moderatuak izan ziren eta herriko industriaren interes orokorre eman zitzaizen lehentasuna. Historialariek diotenez, gatazkarik ez egoteko arrazoia, Eibarren ezaugarri industrialaz bestalde, langile elkarteek zuten afiliatu kopuru handia zen. Toribio Echevarriak berak dioenez, “inoiz ez zen tentsio handiegirik egon herriko errepublikarrekin, eta are gutxiago Bizkaian sarri gertatutako sozialista eta errepublikarren arteko liskar bortitzen neurriko gatazkarik”.

### Zuzendariak zein kideak beti euskaraz

Nabarmentzeko moduko beste ezaugarri berezi bat ere badago: zuzendari eta kideek egiten zuten euskararen erabilera. Amuategi, Marcelino Baskaran eta gainerako buruzagi garrantzitsuenek euskara erabiltzen zuten mitin zein agerraldi publikoetan, eta euskaraz egiten ziren alderdi barneko bilera ere. Ezaugarri horrek Eibarko langile mugimenduaren osaera erakusten du. Izan ere, Eibarren langileen %80a bertakoa zen, eta tartean herri inguruko baserritar asko zeuden. Eta beste toki batzuetan eman ez ziren ezaugarri horiek baldintzatuta joan da gure herriko sozialismoaren bidea, sorreratik gaur egunera arte.

## EROSKETA- IBILBIDEA 2023

Apoyando el comercio Eibarrés

Euskeraz  
primeran!

Apirilaren Titik 30era arte  
Del 11 al 30 de Abril



# Erosketa Ibilbidea kanpaina apirilaren 30era arte egongo da martxan

Eibarko merkataritzari laguntzeko asmoz, Erosketa Ibilbidea kanpaina jarri dute martxan Eibarko Dendarien Elkarteak eta Gipuzkoa Merkataria federazioak, ...eta kitto! Euskara Elkartearekin, Eibar Merkataritza Gune Irekiarekin eta Eibarko Udalarekin lankidetzan

Kanpainaren arduradunen berbetan, “ekimenak helburu bikoitza du: jendea Eibarko establezimenduetan erostera animatzea eta erosketa horietan bezeroek euskara erabiltzea sustatzea. Iaz bezala, aurten ere euskararen erabilerari bultzadaxo bat emango diogu. Izan ere, Eibarren bertan kontsumitzeko erraztasunak ematea eta bertako hizkuntza erabiltzeko aukera ematea bezeroei kalitatea eskaintzea da”. Asmo horrekin, aste honetan abiatu da Erosketa Ibilbidea kanpaina eta hilaren 30era arte egongo da martxan.

## Helburua, Eibarko establezimenduetan erosteaz gain, bezeroek euskara gehiago erabiltzea da

Bideoa  
ikusteko



Dinamika orokorra iazkoa bezalako izango da: “Parte hartzen duen saltokiren batean bezeroak lehen erosketa egiten duenean, kanpainako sobrea emango diogu, barruan hamar laukiko kartillarekin. Kartillako laukiak betetzeko, bezeroak kanpainak irauten duen bitartean 10 saltoki desberdinetan erosketak egin behar ditu. Egindako erosketak guztira gutxienez 200 eurokoak izan behar dira. Saltoki bakoitzak lauki bat zigitatuko du eta bezeroari tiketa emango dio, gutun-azalean gordetzeko (ezinbestekoa da 10 erosketari dagozkien tiketak izatea). Horrez gain, erosketak egitean euskara erabiltzen dutenei (euskaraz agurtzea, euskaraz nahi dutena eskatzea) Euskeraz Primeran! pegatina jarriko zaie laukitxoan, eta gainean establezimenduaren zigitua”.

### Opari-txartelak lehen 140 bezeroentzat

Bezeroak zigituekin kartilla bete ondoren, Eibarko Dendarien Elkartera jo beharko du, bertan kartilla berrikusi eta balioztatu dezaten eta, dena behar bezala badago, 50 euroko balioa duen Oparitu Eibar txartela emango diote. Gainera, 10 zigituez gain, gutxienez Euskeraz Primeran!-en 6 pegatina baldin baditu, txartela 60 eurokoa izango da. Eta 10 pegatina baditu, orduan txartela 70 eurokoa izango da. “Helburua, Eibarko establezimenduetan erosteaz gain, bezeroek euskara gehiago erabiltzea da. Dendariak ez badaki, ez dago arazorik. Dendariak gaztelaniaz erantzungo dio eta Euskeraz Primeran! pegatina jarriko dio berdin-berdin euskaraz hitz egin duen bezeroari. Bestalde, Oparitu Eibar txartelak kanpainan parte hartzen duten establezimenduetako edozeinetan gastatzeko dira, ekainaren 18a baino lehen. Opari-txartelak kartilla 10 zigituekin betetzen duten lehen 140 bezeroentzat izango dira”, diote.

# Andrentzat beti zabalik egongo den etxea

Andretxea Emakumearen Etxeak egoitza berria du Isasi kaleko 11. zenbakian. Orain arte Zezenbide kalean egon den Andretxea ordezkaturko duen egoitza berria martxoko azken egunean aurkeztu zuten, udal ordezkariak, Eibarko Emakumeen Mahaiko kideak eta herritar ugari batu zituen ekitaldian eta, inaugurazioan esan zuten moduan, “emakumeak ahalduzko, jarduerak garatzeko eta ezagutza berriak eskuratu ahal izateko erreferente garrantzitsua bilakatzeko” zabaldu ditu ateak.

Bideoa  
ikusteko



**A**stelena frontoiaren aldamenean, Isasi kalean urteetan erabili barik egon zen eraikina berritzeko lanak askok nahiko luketena baino gehiago luzatu dira, baina Eibarko emakumeak aspalditik eskatzen ari ziren Andretxea berriak ateak zabaldu ditu azkenean eta, hori dela eta, inaugurazio ekitaldian batu zirenak pozarren ibili ziren gela batetik bestera, egoitza berria nolakoa den ikusten.

Eraikinaren barrualdea egokitzeko lanak orain dela urte batzuk eraikinaren kanpoaldea zaharberritzeko egin zirenen osagarriak izan dira eta, ekitaldian gogora ekarri zuten, eraikinak dituen zerbitzuak eta espazio-banaketa definitzeko Berdintasun Sailaren eta Emakumeen Mahaiaren planteamenduak aintzat hartu dira, dagoen azalera ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta bertan arituko direnen premiak modurik egokien asetzeko asmoz. Horretara-



ko, Emakumeen Mahaiko kideek eta mahai horretan ez dauden beste emakume batzuek lantalde bat eratu zuten, eta hilabeteak eman dituzte lanean, Andretxea nolako izatea nahi zuten pentsatu eta adosteko bilerak egiten. Horregatik, neurri handi batean, lan horren emaitza izango da Isasi kaleko 11. zenbakiko atetik sartzen direnek aurkituko dutena.

### **Berdintasun Zerbitzuko bulegoak eta jarduera ezberdinetarako gelak**

Ate nagusitik beheko solairura sartzen da zuzenean eta harrera-lekua, bulego-gune bat eta erabilera anitzeko espazio bat daude han. Lehenengo solairuan, berriz, Udaleko Berdintasun Zerbitzuko talde tekniko eta politikoarentzako bulegoak daude, baita erabilera anitzeko gela zabal bat eta bilerak egiteko beste bat ere. Bigarren solairuan liburutegia, ordenagailu-gela, berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteentzako eta emakume-taldeentzako hainbat bilera-gela eta sukalde handi bat daude. Azken honek funtzio bikoitza izango du: bertan biltzen diren emakumeentzat topagunea ez ezik, sukaldaritza ikastaroak egiteko prestakuntza-espazioa ere izango da. Gainera, erdisotoan, eszenatoki gisa erabili daitekeen txoko bat dago, "formatu txikiko ikuskizunak, hitzaldiak eta horrelako beste jarduera batzuk egiteko".

Patricia Arrizabalaga Berdintasun zinegotziaren berbetan, "Eibarko emakume guztiak merezi duten tokia, urteetan errebindikatzeko egon garen espazioa zabaltzea lortu



Bizitza osoa emakumeen aldeko borrokan ibili den Priscila Valderramak, beste askok bezala, orain dela 36 urte baino gehiago izandako ametsa bete egin da Andretxea berriaren ateak zabaltzarekin batera.

**>>> Laguntza eske, zerbait ikasteko, informazioa jasotzeko... Herriko emakume guztiak Andretxeara gerturatzea gustatuko litzaieke**

dugu. Eibarren emakume elkarte asko daude eta, gainera, jarduera asko antolatzen dituzte. Aspaldi hasi ginen ikusten Andretxea (Zezenbide kalekoa) txikia geratzen ari zela horiek guztiak, Jabetze Eskola, tailerrak, hitzaldiak... egin ahal izateko".

Eibarko Emakumeen Mahaiko kidea den Priscila Valerramaren berbetan, "orain dela 36 bat urte izan genuen ametsa bete egin da. Emakumeak gizartearen barruan ordezkatuta egon daitezeko borro-



Emakumeek osatutako lantalde batek hilabeteak eman ditu lanean, espazioak ahalik eta modurik egokienean nola antolatu pentsatzen, Andretxea berriak eskainiko dituen aukera berriei etekinik handiena atera nahiean.

katu dugu urteetan eta, nahiz eta urte asko pasatu diren, oraindik ere helburu hori lortzeko lanean jarraitu beharra daukagu; zoritxarrez, gauzak ez daude lehen baino hobeto. Andretxea berria horren gertu dagoela aprobetxatuz, emakume guztiak gerturatzea nahiko genuke. Laguntza behar badute, formazioa jaso nahi izanez gero... hona etortzea nahiko genuke, hemen behar duten informazioa eta laguntza emango diegu eta”.

#### Emakume artisten erakusketa

Andretxea berria noiz zabalduko zen zain horrenbeste denbora egon eta gero normala denez, ateak zabaldu bezain laster estreinatu nahi izan dituzte instalazioak: “Andretxea: Gure Gela Propioa” izenburuko erakusketa zabaldu zuten inaugurazio egunean bertan, Eibarko hainbat emakumeren lanekin: Mireia Agirreña Ubera, Virginia Arakistain Ariznabarreta, Maite Arriaga Arri-

## >>> Bihargiñak, Damaskinatzaileak, Erraketistak, Maistrak eta Sorgiñak, horiek dira gela eta espazio berrietarako aukeratutako izenak

zabalaga, Marina Barrena Ortuoste, Maialen Belaustegi Lapeyra, Jone Bengoa Urizar, Bakarne Elejalde Garitagoitia, Esther Galarza Berasqueta, Natalie Hickey, Leire Kareaga Azkarraga, Satur Peña Puente eta Esperanza Zabala Garcia artisten lanak apirilaren 30era arte egongo dira ikusgai, Damaskinatzaileak izeneko gelan.

Zaharberritze lanei esker, bestalde, eraikinaren alboetako bat

berreskuratu da, “multzoarekin harmonizatzeko. Astelena pilotalekurako sarbideak ere hobetu dira, eta gaur egun duen baino sarrera zabalagoa eta modernoagoa egin da. Larrialdietako ebakuazioa ere hobetu egin da”.

Isasi kaleko eraikina oso hondatuta zegoen eta, hori dela eta, zaharberritze-lanen kostua ez da txikia izan. Kanpoaldeko lanengatik 700.000 euro inguru ordaindu dira eta horri barrualdeko azpiegiturak egokitzeak eta hornitzeak kostatutakoa gehitu behar zaio. Azaldutakoari jarraituz, “Madrilgo gobernuak 472.747 euroko dirulaguntza eman dio Udalari, Andretxearen egoitza berria barrutik eraberritzeko. Dirulaguntza horrekin, Andretxeako adjudikazio-obren aurrekontuaren erdia kontsentsatzen da, gutxi gorabehera. Lan horiek Urdinberri-Viuda de Sainz UTEri adjudikatu zitzaizkion, 917.437 eurotan”.

# “Eibartarrak oso atseginak zarete eta Eibar KE oso talde familiarra da”

HONOKA YONEI • Foballaria



Joan den denboraldian maila galdu ondoren, Eibar KE Iberdrola Ligara igotzeko postuetan da gaur egun, bigarrenen hain zuzen ere, igo ezin daitekeen Bartzelona B-ren atzetik. Dena dela, denboraldia amaitzeko bost neurketa jokatzeko faltan, zazpi talde daude lau punturen baitan eta eibartarrek gogor ekin beharko diote mailaz zuzen igotzeko; bestela, igoera-fasea jokatu beharko dute.

**E**ibar KE-k hainbat aldaketa izan zituen denboraldi hasieran, alta eta baja askorekin, eta beteranoen lana berebizikoa izan da aurreten maila ona emateko. 23 urte eduki arren, Honoka Yonei da taldeko beteranoetako bat. Erdilari japoniarra 18 urterekin etorri zen Eibarrera eta jokalarari garrantzitsua dela erakutsi du denboraldi hauetan. Gainera, gustora dago taldean eta herrian, eta beste denboraldi baterako luzatu du kontratua Eibarrekin.

**Denboraldia amaitzeko bost partidu gelditzen dira, igoera postuetan zaudete, baina talde asko dituzue oso gertu. Nola ikusten duzu denboraldi amaiera?**

Baikor gara. Zazpi talde gaude hor aurrean eta, orain bertan igoera postuetan egon arren, ezin gara erlaxatu. Datorrenari aurre egiteko mentalizatuta gaude eta argi dugu den-dena irabazi beharko dugula Lehen Mailara zuzenean igo nahi badugu.

**Hain denboraldi gogorra eta berdindua izango zela espero zenuten?**

Bai, bagenekien ez zela batere erraza izango, baina ez nuen espero hain txapelketa lehiatua izango zenik, hainbeste talderekin lehenengo postuetan oso puntu gutxitan. Dena dela, argi nuen gu hor aurrean egongo ginela.

**Iazko maila galdu zenuten eta aldaketa asko egon ziren taldean, jokalarari askok kluba laga eta berriak etorri zirelako. Nola moldatu zarete aldaketa guztiei aurre egiteko?**

Iazko taldetik sei jokalarari besterik ez ginen geratu eta beste guztiak berriak dira. Beraz, hasiera berri bat izan da denontzat. Hala ere, hasieratik izan gara talde lehiakorra eta oso talde ona daukagula uste dut.

**Maila pertsonalean, nola aurkitu zara denboraldi honetan?**

Aurten ia neurketa guztiak jokatu ditut eta oso gustora eta eskertuta nago eman dizkidaten aukerengatik eta taldeari ahal dudan neurrian laguntzeagatik. Dena dela, gehiago nahi dut eta horregatik luzatu dut kontratua Eibarrekin.

**Taldearen barruan aurrerapausuak eman dituzula uste duzu?**

Bai. Ia sei urte daramatzat taldean eta demaseko maitasuna hartu diot klubari. Jende asko ezagutzen dut eta gero eta konfiantza gehiago hartu dut, taldean zein herrian, eta horrela izaten jarraitzea gustatuko litzaidake. Gehitzeko nago hemen.

**Urtebetez luzatu duzu kontratua Eibarrekin. Lehen Mailan jokatzeko esperantzaz?**





Jokalari japoniarrak 2018an fitxatu zuen Eibarrekin eta aurren beste denboraldi baterako luzatu du kontratua taldearekin. SD EIBAR

Esperantza hori dut, baina igoera lortu ez arren, datorren urtean ere igotzeko lehian egongo garela uste dut. Lehen Mailan jokatu nahi dut Eibarrekin.

**Foballean ez da ohikoa izaten zu bezala sei urtez talde berean jarraitzea. Gustora zauden seinale?**

Hori da. Eibar herri txikia da eta egia da batzuetan ez dagoela gauza asko egiteko aukerarik, baina eibartarrak oso atseginak zarete eta baita taldeko jendea ere. Oso klub familiarra da eta alderdi hori asko gustatzen zait.

**18 urterekin etorri zinen Japoniatik. Nolako aldaketa sumatu zenuen heldu zinenean?**

Aldaketa handia izan zen. Dena dela, Japonian gurasoen etxetik kanpo bizi nintzen, foball-akademia batean jokatzeko bainuen. Sei urte egin nituen taldekideekin bizitzen eta familiarengandik urrun bizitzera ohituta nengo. Hori bai, Eibarrera etortzea beste kontu bat zen, lehen aldia baitzen Japoniatik kanpo bizitzen, eta hasieran asko kostatu zitzaidan, ez nuelako hizkuntza ezagutzen. Bilbon eta Eibarren gaztelera ikasteko klaseak jaso nituen eta taldekideekin asko ikasi nuen.

**Eta bizimoduan aldaketa handiak igarri zenituen?**

Hasieran bazeuden ulertzen ez nituen gauza batzuk,

**“Espainian foballaren kultura oso hedatuta dago eta, emakumezkoen foballari hazteko baliabideak ematen badiote, asko hazi daiteke”**

baina horrek ez zidan hainbeste eragin. Egoera ezberdinetara erraz moldatzen den pertsona naizela uste dut. **Eibarrera etorri zinenean, gizonzkoen taldean Takashi Inui zegoen eta gero Yoshinori Muto etorri zen, eta emakumezkoetan Tomo Matsukawa ibili zen ondoren. Lotura berezia dago Japonia eta Eibarren artean? Horrek moduren baten lagundu zizun?**

Fitxatu nindutenean Inui zegoen hemen eta bere itzul-tzaile lanak egiten zuen mutilak asko erraztu zidan etorrera.

**Japoniako emakumezkoen selekzioa munduko txapeldun izan zen 2011n eta tradizionalki potentzia**

### **handia izan da emakumezkoen foballean. Zentzu horretan, aurreratuago daude gauzak han?**

Japoniak munduko txapelketa irabazi zuenean emakumezkoen foballak demaseko interesa piztu zuen herrialdean eta indar asko izaten jarraitzen du oraindik, baina azken urteotan Europan eta beste herrialde batzuetan emakumezkoen foballak gorakada handia bizi izan du eta Japonian ez hainbeste. Beraz, gaur egun Europan maila handiagoa dagoela eta jendeak interes gehiago duela esango nuke. Gainera, Espainian adibidez, foballaren kultura oso hedatuta dago, gizonezkoen foballa bada ere, eta emakumezkoen foballari hazteko baliabideak ematen badiote, asko hazi daitekeela uste dut.

### **Hori izan zen hona etortzeko arrazoietako bat?**

Bai. Eibarrekin fitxatu aurretik, 17 urterekin, Japoniako taldearekin lagunarteko batzuk jokatu genituen hemen inguruan. Hemengo kultura eta foballa bizitzeko modua asko gustatu zitzaizkidan. Orduan, batxilergoa amaitu ondoren hona etorriko nintzela erabaki nuen. Gainera, bidaia horretan Inui sarritan etorri zen gurekin afaltzera eta berba egitera, eta berak esaten zuenak asko eragin zidan. Hemen oso pozik zegoela esan zigun eta horrelako esperientzia bat bizi nahi nuela ikusi nuen.

### **Gauza arrunta da jokalarri japoniarrek atzerrian jokatzea?**

Japoniako jokalarri askok jokatu dute atzerrian, baina helduagoak zirenean eman zuten jautzia. Uste dut ni izan naizela hain gazte etorri den bakarrenetako bat.

### **Japonian, emakumezkoen foballak nolako jarraipena du zaletuen aldetik?**

Unbera joaten den zaletu kopuru txikiarekin alderatuta... (barreak). Ia ez da jenderik etortzen gure partidua ikustera, ez dago giro handirik. Beste zelai batzuetan bai ikusten da publiko gehiago. Japonian ere ez zen publiko askorik egoten gure partiduetan, hirugarren mailan jokatzeko gure partiduetan, baina lehen mailan bai, hemen baino zertxobait gehiago.

### **19 urtez azpiko selekzioan jokatu zenuen. Maila absolutuan jokatzeko itzaropena duzu?**

Ez da ezinezkoa, baina oso zaila dela esango nuke, oso



## **“Japonian, jokatzeko estiloa teknikoagoa da. Hemen taktikoki asko hobetu dut, eta bigarren jokaldiak aprobetxatzen, talka egiten eta baloiak lapurtzen ikasi dut”**

jokalarri onak daudelako. Batzuek Japonian jokatzeko dute, baina beste batzuk Italian, Ingalaterran eta AEBn. Entrenatzaileak baditu gustoko foballariak eta zaila da tokia lortzea. Hori bai, izugarri gustatuko litzaidake. **Japoniatik kanpo jokatu izanagatik, foballari bezala eboluzionatu duzula uste duzu?**

Bai. Japonian baloia gehiago ukitzen genuen, ez zen hain joko zuzena egiten eta ez zen hain fisikoa. Moduren batean, joko teknikoagoa zen han. Hemen beste estilo hori ikasi dut, taktikoki asko hobetu dut, eta bigarren jokaldiak aprobetxatzen, talka egiten eta baloiak lapurtzen ikasi dut.

## Mecalbe Eibar-ek mailari eustea izango du jokoan bihar Ipuruan



Heldu da zirt edo zart egiteko unea. Liga amaitzeko azken jardunaldira helduta, Ipuruan zapatu honetan, 19:00etan hasita, Zilarrezko Oho-rezko mailari eustea euren eskuetan izango duten bi taldeek neurtuko dituzte indarrak, euren artean konpondu beharreko lehiari. Mecalbe Eibar Eskubaloiak aurretik bazekien, Lagunak taldearengandik puntu bakarrera egonda, honakoa zela azken aukera nafarrei aurrea hartzeko. Baina azken jardunaldian eibartarrek Omega Peripherals Basauriren kantxan lortutako ezusteko garaipen itzelak (19-22) eibartarrak aurretik kokatu ditu sailkapenean;

hau da, berdinketarekin nahikoa izango lukete mailari eusteko. Dena dela, ez da hori emaitza ohikoena eskubaloian eta irabazten ahalegin-duko dira Andoni Perezen neskak. Argi dago alde handirik ez dagoela bi taldeen artean eta gauza txikiek markatu dezaketela partidua nondik norakoa. Iruñean jokotutako partidua, esaterako, nafarren aldeko 21-20ekoa erakutsi zuen margailuak.

1. Maila Nazionalako gizonen taldeak, bestalde, laugarren jarraitzen du sailkapenean. Bihar Tolosaren kantxan izango du partidua, 19:30ean hasita.

## Eibar FT-k bost jardunaldiko esprinta hasiko du domekan Madrilen

Federazioko 1. Mailan jokatzeko duen Eibar FT-ko emakumezkoen lehen taldeak gaur egun duen postuari eusteko asmoz Ligako azken faseari. Bost partiduko beste ez dira geratzen liga amaitzeko eta Yeray Martinek zuzentzen duen taldea igoera zuzena eskainiko zion tokian dugu; hori bai, oso gertutik jarraitzen dioten boskoteak lehia ezin borrokatuagoa iragartzen du gero



eta gertuagoko amaiera honetan. Aurreko asteburuko atsedenaren ondoren, domekan 13:30ean Rayo Vallecanori egingo diote bisita eibartarrek, hiru puntu garrantzitsuen bila. Gero bi partiduko etxean eta beste bi kanpoan izango ditu Eibar FT-k: Cacereño eta Cordoba hartuko ditu Unben eta goiko borroka horretan dauden Cacereño eta Granada taldeen zelaietan jokatu beharko du.

## Astelenak buruz-buruko txapelketaren Ezkurdia-Jaka hartuko du etzi

Pilotaren Katedralak pilotari profesionalen jaialdia eskainiko du domeka arratsaldean, ohikoa denez arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Jaialdi horretan hiru buruz-buruko ikusteko aukera izango da: bi promozio mailakoak eta, jaialdiko partidua nagusiak, Jaka eta Ezkurdiaren arteko lehen mailakoa. Aurretik

Zabalak eta Salaberriak neurtuko dituzte indarrak, eta Egiguren V eta Expositoren artekoarekin itxiko da ekitaldia. Martitzenean izan ziren Astelenan pilotak aukeratzeko eta azken aldiari min hartuta dagoen Ezkurdia, itxaropentsu azaldu arren, beste proba bat egitekotan geratu zen.



## Aste Santuko Leongo mendietatik Artzaintzaren Naturbidera

Aste Santu bete izan zuen Leongo mendietara abiatu zen 17 laguneko taldeak, eguraldia lagun bost egunetan ondo zehaztutako hainbat ibilbide egiteko. Lehen egunean Somiedotik La Cuetara jo zuten, 13 kilometrotan 720 metroko desnibela gaindituz. Bigarrenean Valdepradotik Degañara joan ziren, ia 17 kilometro egin eta ia 1.000 metro gainditzeko. Hirugarrenean Viveyron hasi zuten “txangoa”, Cuevas del Sil-en amaitzeko, aurretik 22 kilometro baino gehiago eginez eta 980 metro garaierako aldea eginez. Laugarrenean aukera izan zuten Aberri Eguna ospatzeko zeharkaldietako punturik garaienean (Cattoute, 2.112 metro), Salentinosen hasiera eta amaiera izan zituen 18 kilometroko ibilaldian, 1.200 metroko desnibelarekin. Bosgarren eta azken egunean Caldas de Luna herriko bainuetxetik abiatu ziren, 15 kilometro eta erdi osatu zituzten,



Leonera joandako mendizaleetako batzuk Cattouten, Aberri Eguna ospatzen.

857 metroko garaiera aldearekin. Dena mendia ez izateko, Caboalles de Abajo herrian meatzarien prozesioa ikusteko aukera ere izan zuten, eta baita meatzariak kudeatzen duten garagardotegiko produktua dastatzeko ere.

### Hurrengo irteera

Klub Deportiboko mendi taldearen hurrengo irteeran Artzaintzaren

Naturbideari helduko diote berriro. Hilaren 22an horko 18. etapa egingo dute, Villalba de Losatik Barriga de Losara doan bidea egiteko, tartean Solaiara (1.038 metro) eginez. 22 kilometrokoa izango da egin beharreko distantzia. Beti bezala, interesatuek Deporrera jo dezakete martitzen eta egunetan (19:30-20:30) edo, bestela, 943201904 zenbakira deitu.

## Nerea Garcia errugbilariak Las Leonasekin debutatu zuen

Madrilgo Estadio Central Complutense estadioan jokaturako emakumezkoen 4 Naciones torneoan egin zuen debuta Eibar Rugby taldeko jokalaria. Lehen jardunaldiko 56. minutuan kantxaratu zen **Nerea**

**Garcia** gernikarra, Las Leonas selekzioan jokatu duen 243. jokalaria bihurtuz. Txapelketako bigarren jardunaldian Hego Afrikako XV-ren kontra jokatu zuten eta selekzio horretan izan zen aurretik Eibar

Rugbyrekin jokatu izan duen beste jokalaririk bat ere. 2019tik 2021era arte, bi denboralditan, Eibarrekin jokatu zuen **Babalwa Latsha** hamabost modalitateko lehen jokalaririk profesionala izan da Hego Afrikan. Bestalde, bertan parte hartu zuen baita **Sabrina Poulin** kanadiarrak ere, denboraldia Eibarko taldearekin jokatzetik datorrenak. Bi partidutan lau entsegu egin ondoren, txapelketako puntugile nagusia bihurtu zen Poulin.

Cristina Guntinen taldeak, bestalde, ligari eutsiko dio berriro asteburuan, sailkapenean aurretik duen A Coruñaeko CRAT taldeari bisita egiteko (domekan, 12:00etan).



## Paula Calvo bere mailako igerilari onena Udaberriko Sarian

Irungo Azken Portu kiroldegian jokaturako Udaberriko Gipuzkoa Sarian Eibar Igerixan taldeak 11 laguneko ordezkariak aurkeztu zuen, zazpi emakumezko eta lau gizonezkoek osatutakoa. Hiru izan ziren absolutu mailan, lau juniorretan eta beste lau infantil mailan. Bertan eskuratutako emaitzak ez zi-

ren nolana hikoak izan eta, euren artean, dagoeneko txarto ohituta gaituen Paula Calvok 100 euroko txekoa jaso zuen Udaberriko Sarian infantil mailako onena izateagatik.

Aipaturako igerilaria, bere mailako bizkar probetako 100 eta 200 metrokoetan eta libre erako 400ekoan nagusitzeaz gain, maila absolutuko

400 librekoa ere bereganatu zuen, bigarrena izateko bizkar erako beste bietan. Ez zen bera izan irabazle bakarria eibartarren artean, Miren Galdos bizkar erako 50 eta 100 metroko probetan nagusitu zelako, hori absolutuen mailan eta, behin juniorretara pasatuz, Igor Ruiz eta Malen Beobide onenak izan zirelako 100 tximeletakoan eta 100eko estiloetan, hurrenez hurren.

Bigarren postuei dagokienaz, azpitxapeladun izan ziren Beobide bera 200 brazan eta Maddi Maguregi 100 tximeletan junior mailan, eta Asier Gomez absolutuetan, libre eta estiloko 400 metroko probetan, ahaztu barik Ruiz juniorrak lortutako postu hori 50 librekoetan. Eibar Igerixanekoek eskuratutako hirugarren postuak beste bost izan ziren, tartean 4x100 libre erako errelebo mistoetakoa.



## Asola Berrikoak goiko postuetan 52. Gipuzkoako txapelketan

Aste Santua pasatuta, bihar Sorauluzeko San Andres bolatokian jokatu da Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketako bosgarren jardunaldia, arratsaldeko 17:00etan hasita. Elgoibarko Idotorbe auzoko San Pedro bolatokian jokaturako laugarren jardunaldian, bestalde, Aretxabale-tako UDArekin jokatzeko duen Isana Gorosabel eskoriatzarra nagusitu zen, San Migueleko Xabier Loiola eta Asola Berriko Pedro Gomez eta Bittor Astigarragari aurrea hartuz.

Aipaturako garaipen horrek emakumezkoen mailako sailkapeneko lehen postua eman dio Isana Gorosabeli, Olaitz Rodriguez eta Jone Perales eibartarrei aurrea hartuz. Sailkapen orokorrari begira, Pedro Gomez eibartarra dago goren-gore-

nean, 17 txirlorekin, 15ekin dagoen San Migueleko Xabier Loiolaren aurretik. Atzetik jarraitzen diete San Andreseko Lander Odiagak (14 txirlo) eta Floreagako Gorka Etxanizek eta Bittor Ugarteburu eibartarrak bat gutxiagorekin. Asola Berriko beste ordezkariak honela daude: 12 dituzte Gari eta Sergio Rodriguezek, 11 Alex Camposek, 10 Bittor Astigarragak, bederatzi Ganix Rodriguezek, zortzi Aitor Aldalurrek eta bost Gorka Unamunok. 10 txirlo ditu baita San Joxepekin jokatzeko duen Mikel Urkia eibartarrak.

Bestalde, Pedro Gomezek eta Bittor Ugarteburuk onenak izaten jarraitzen badute beterranoetan, Asola Berri A taldeak ere bere aldeari eusten dio taldekako sailkapenean: Ei-



barkoek 67 txirlo bota dituzte, San Miguel A-k 56 eta San Andres A-k 45. Infantilen sailkapenean Iosu Urkia da liderra.

## Jonas Vingegaard Itzuliaren jaun eta jabe izan zen

Azken aldian munduko lehen mailako txirrindularitzan bada seikote bat (Pogačar, Evenepoel, Roglic, Van Aert, Van der Poel eta Itzuliaren irabazleak osatutakoa) beste guztiak ikaragarriko nagusitasuna erakusten diharduena eta horrelako beste adibide bat ikusi ahal izan genuen Itzuliaren azken edizioan. Vingegaard azken Tourreko irabazleak arlo askotan erakutsi zuen nagusitasun hori eta aldamenean inor ez zuela ikusi genuen Eibarren sartzen Itzuliaren azken etapan: ibilbidearen inguruan inolako kezurik ez zuen adierazi norvegiarrak eta oso pozik amaitu zuen lasterketa.

160 txirrindulariz osatutako tropela abiatu zen Gasteiztik lehen egunean, Ethan Hayterrek esprintean irabaziko zuen etapan. Viana eta Leitza arteko bigarrenean Ide Schelling nagusitu zen, kilometro oso urduri batzuen ondoren. Hikako igoera gogorrean amaitu zen hirugarrenean hasi zen Vingegaard bere agintea erakusten, %26ko gehieneko malda horiek ondo baino hobeto gaindituz. Hurrengo egunean lepo beretik... esa-



ten dena: Santurtzin ere bera izan zen lehena helmugaratzen, Mikel Landa alboan zuela, La Asturiana mendatean eraso jo eta amaiera bikaina emanik. Amorebieta-Etxanoko etapa esprintean erabaki zen, horko horretan Bora-Hansgrohe taldeko Sergio Higuita kolonbiarraren garaipenarekin. Eta, gure herrian hasi eta amaitu zen etapan, azkenean bere lehen txapela jantziko zuen norvegiarrak Ixuarako bi kilometroren faltan emandako aizkorakadak bakar-bakarrik laga zuen aurretik eta beste guztiak ezin izan zuten ikusi helmugara iritsi arte.

Azken sailkapenean bi euskal txirrindularik lagundu zioten irabazleari podiumean, Mikel Landak bigarren postuan eta Ion Izagirrek hirugarrenean. Mendiko sailkapena beste euskaldun batentzat izan zen, Caja Ruraleko Jon Barrene txearentzat. Puntukako sailkapena Vingegaardek berak eraman zuen, gazte onena Brandon McNulty izan zen, eta taldekako saria Soudal Quick-Step taldearentzat.

### Challenge arrakastatsua

Azken etaparen amaieran txirrindularitzari buruzko solasaldia izan zen Udalean, Europako Kirol Hiri gisa egiten diharduten ekitaldien barruan. Han izan ziren Abraham Olano, Amets Txurruka, Marino Lejarreta, David Etxebarria, Santi Blanco, Mikel Zarrabeitia eta Roberto Laisekarekin. Eta hurrengo egunean, domekan, Itzulia Basque Challengearen lehen edizioaren ordua iritsi zen. 08:00etan egindako aureskua eta zinta-mozketaren ondoren, 200 lagunek osatutako tropela abiatu zen orduan eta, goiz osoan zehar, txirrindularitza giroarekin jantzi zuten Eibar erdialdea, helmugaratzen ziren martxari jarraituta. Bertan izan ziren baita txirrindularitza munduko hainbat pertsonaia ere.



## David Dominguez garaile 52. Valenciaga Memorialean

Zamora Enamora taldeko David Dominguez kataluniarrak lasterketaren amaierarako hiru kilometroren faltan burututako erasoak erabaki zuen azkenean domeka goiz horretan jokaturako lasterketa. Ez zuten egun erraza izan Espainiako Koparako baliogarria zen proba horretan abiatu zirenek; horren adibide dugu 196 parte-hartzailetik 71k lasterketa bertan behera laga behar izan zutela, berezko gogortasunari eguraldi kaxkarra gehitu zitzaiziolako. Irabazleak ia 40 kilometro orduko batzbestekoa egin zuen eta bere atzetik Laboral Kutxako Iker Mintegi (bi segundora) eta Finisher taldeko Jorge Gutierrez (14 segundora) helmugaratu ziren, modu horretan podiuma osatzeko.

Bestelako sailkapenei dagokienez, Dominguez lasterketako irabazleak mendiko sailkapena eta tarteko helmuetakoa ere bereganatu zituen. Esprint berezietan Iñaki Trujillo izan zen garailea, taldeka Telco - On Clima - Oses izan zen nagusi, eta talde horretako Jon Ibarluzea izan zen Debabarreneko onena, beste eibartar baten (Mikel Perez de Obanos) aurretik. Eibar Txirrindulari Taldekoak honako



postuetan helmugaratu ziren: Harritz Sein 57. postuan sailkatu zen, Perez de Obanos 70.a izan zen, eta ondoren sartu ziren Aimar Aiestaran (104) eta Jokin Amorrosta (108). Lasterketa, aurreko edizioen

bidetik, arrakastatsua izan zen beste behin eta ez ziren gutxi izan lasterketa jarraitu zutenak streaming bidez, alde batera laga barik errepide bazterretik txirrindulariek jaso zituzten animo guztiak.



## Kadeteen mailako Pneumax Sari Nagusia jokatu da domeka goizean

Eibarko Txirrindulari Elkarte Sariaren seigarren edizioa izango da jokoan etzi goizean. Kadeteen mailako lasterketa hori goizeko 10:15ean abiatuko da Untzagatik eta, 68 kilometroko ibilbidea osatu eta gero, eguerdi aldean (12:00 bueltan antolatzaileen esanetan)

amaituko da Urkizu pasealekuan. Probak Pneumax Sari Nagusiaren izena hartu du eta ohiko ibilbideari jarraituko dio, "Soraluze, Bergara, Arrasate eta Aretxabaletatik pasatuta, Eskoriatzara heldu eta, bertan buelta emanda, Eibarko helmugarren bila etortzeko".

# “Kantu-idazlea naiz eta izaera horri eustea garrantzitsua bilakatu zen niretzat”

Bideoa ikusteko



MARKOS UNTZETA • Musikaria



‘Ekilibrista’ da Markos Untzeta musikariaren azken diskoaren izenburua. Sasoi gorabeheratsuetan helduleku den lana publikatu du eibartarrak, bere ohiko estiloari jarraituz eta hitz zintzoak josiz. Giovanni Zanonen laguntzarekin sortu du diskoa Untzetak, xumetasunez eta arreta handiz, gure buru eta belarrien sendagarri modura.

**M**arkos Untzetaren seigarren diskoko abestiak zuzenean entzuteko aukera izango dugu hilaren 21ean, 20:30ean, Coliseo antzokian (sarrera 10 eurotan). Eibartarrarekin, gainera, herrikideentzat ezagunak diren zenbait lagun igoko dira eszenatoki gainera: Walter Tuzzeo (baxua), Iñaki Ortega (bateria), Giovanni Zanon (gitarra) eta Mikel Gaztelurrutia (teklatura).

## Une zail batetik irten den diskoa da ‘Ekilibrista’. Pandemiarekin zerikusia du?

Jatorriz ez zen pandemiaren testuinguruan sortu, krisialdi pertsonal baten ondorioz baizik. Oreak galdu ondoren, berau nola berreskuratu daitekeen da kantu gehienen ildo. Hau da, zeintzuk diren norberak dituen baliabideak eta tresnak oreak berreskuratzeko. Kontua da diskoaren zatirik gehiena idatzita nuenean pandemia etorri zela eta horrek diskoaren ikuspegia beste alde batetik lantzea ahalbidetu zidala. Hau da, zerbait pertsonala izan barik, zerbait kolektiboa aurkeztea. Horretarako, pandemiaren egoerari erreferentzia zuzena egiten zioten abestiak behar nituen eta bi kantu idatzi nituen. Horrela, ‘Ekilibrista’ albumaren ikuspegia osoagoa bihurtu zen eta, pertsona batek

bizi duen muturreko egoera baten erantzuna izate-tik, neurri batean denok bizi izan genuen momentu bateko erantzuna bilakatu zen.

## Oreaki eusteko musika da heldulekua zuretzat?

Momentu horretan hala izan zen. Egoera hura gertatu zenean, konturatu nintzen neure izaeraren parte handi bat kantuak idaztea, ekoiztea, grabatzea, zuzenekoak prestatzea eta abar dela. Hau da, nire izaerak definitzeko modu bat bazuen, hori zela. Kantu-idazlea naiz eta izaera horri eustea garrantzitsua bilakatu zen.

## Arlo musikalaria begira, nolako diskoa da?

Ez naiz musikari apurtzailea edo bereziki originala. Beti saiatzen naiz ahalik eta modurik zintzoenean idazten eta kantuak ahalik eta hobetoen prestatzen. Nire estilo musikala oso apala da. Denok ezagutzen ditugun akordeak egiten ditut. Kantuak ahalik eta soilen izan daitezen saiatzen naiz, inpaktua zuzena izan dadila lehenesten dut, bat-batekotasuna gustatzen zait eta kantuak esaten duena entzulearengana zuzen joan dadila. Abestiak pop-rock doinu tradizionalekin janzten ditut. Bateria, baxua eta gitarra-elektro bi (eta, akaso, akustikoa) ditugu beti gure formazioan, eta teklatura batzuk gehitzen ditugu lantzean behin. Folk, country eta blues ukituak ere baditu neure musikak.





Markos Untzeta musikari eibartarraren seigarren diskoa da 'Ekilibrista'. MARKOS UNTZETA

### **Disko honen sorkuntzan Giovanni Zanon izan duzu lagun. Nolako ekarpena egin du?**

Diskoak grabatzea gero eta zailagoa da. Zailagoa diot diskoari etekin ekonomikoa ateratzeari dagokionez. Beraz, estudioira joan aurretik abestiak ahalik eta hobeen prestatuz gero, estudioan gauzak arinago egingo dituzu. Oraingoan aurreproduktzio lan handia egin dugu eta Giovanni hasieratik ibili da nirekin. Nire estiloa ez da oso markatua eta Giovannik bere zigilua lagatzeko modua aurkitzen du. Horrela, berari esker, nire kantuak pertsonalagoak bilakatzen dira.

### **Diskoaren argitalpena, ia betiko lez, Gaztelupeko Hotsak esku laga duzu. Nolako harremana duzu eurekin?**

Eroso nago eurekin eta konfiantza sentitzen dut. Badirudi ezetz, baina argitaletxe baten konfiantza edukitzeak egonkortasuna ematen du, kantuak idazten jarraitzea ahalbidetzen dizu, eta animoei eta indarrei goian eusten laguntzen du.

### **Gainera, gertukoak dira, Soraluzeokoak.**

Etxekoak dira. Sei diskotik bost atera ditut eurekin eta harreman luzea dugu denboran. Ondo doazen gauzak ez dago zertan aldatu behar.

## **“Kantuak ahalik eta soilen izan daitezten saiatzen naiz, inpaktua zuzena izan dadila lehenesten dut”**

### **Diskoak sortzeko orduan nola jarduten duzu?**

Lehenik eta behin kantuak idazten ditut, bakar-bakarrak, gitarra akustikoaren laguntzarekin. Gero, buruan kantua entzuten hasten naiz eta beste norabide batzuetan ikusten dut. Orduan, norabide hori finkatzen eta zehazten hasten naiz, kasu honetan Giovannirekin. Ondoren, gainontzeko musikariei erreferentziak ematen dizkiet eta erreferentzia horien barruan malgutasuna izaten dute ekarpenak egiteko.



Coliseo antzokiko kontzertua berezia izango dela aitortu digu Untzetak. MARKOSUNTZETA

Poliki-poliki kantua gorpuzten joaten da, hezurmatitzen, eta oraingo honetan moldaketa guztiak oso argi genituela joan ginen estudiora.

**Orain zuzenekoekin zabilzate. Nolako kontzertuak eskaintzen saiatzen zarete?**

Zuzenekoetan kantuak duen bat-batekotasuna areagotu egiten da. Jendearen aurrean, intimitate horrek eta bestearen presentziak kantua biziagoa izaten laguntzen du. Nahi eta nahiez kantuak indar gehiago hartzen du eta esperientzia indibiduala izatetik kolektiboa izatera pasatzen da, beste erresonantzia bat du, bizirik dago, eta momentu bereziak dira. Urteak eman ditugu zuzenekorik eskaini gabe eta, Coliseoko emanaldia berezia denez, aldezturik beste zuzeneko batzuk eskaintzea erabaki genuen, jendaurreko entsegu batzuk izango balira bezala. Durangon eskaini genuen kontzertu bat eta bihar Ondarroan egongo gara, Jai Braian aretoan. Ea eguraldiak laguntzen duen, aire librean egitea baita asmoa.

**Zergatik da berezia Coliseoko kontzertua?**

Orain dela hamar urte inguru jo genuen bertan eta azkenengo urrian bideoa grabatu genuen han. Gure

**“Zuzenekoetan kantuen bat-batekotasuna areagotu egiten da. Bestearen presentziak kantua biziagoa izaten laguntzen du”**

musikarentzat toki aproposa da zuzenekoak eskaintzeko. Oso baldintza erosoak ditu eta musika ondo janzteko baliabide ezinhobeak ditu. Kontzertua ondo prestatu dugu eta ondo irtengo dela pentsatzen dugu.

**Gainera, jaioterrian joko duzu.**

Nire ibilbidearen hasieran hainbat kontzertu eskaini nituen Eibarren, baina aspaldian nago etorri barik. Gogotsu nago Coliseoko kontzertuaren aurrean.



Ipurtargiak zeru-lurrean. HARITZ ELORTZA



## Maiatzaren 5ean egingo da familien arteko ginkana

Iazkoari jarraituz, ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Astixaren laguntzarekin, "Familia arteko ginkana" antolatu du maiatzaren 5erako. Lehen Hezkuntzako ikasleei eta haien familiei zuzendutako ekimena Untzagan hasiko da, 17:15ean, eta asko jota pare bat orduko iraupena izango du. Izena taldean eman beharko da, eta taldeak gehien jota hamar lagunez osatuko dira. Taldeko kideak familia berekoak edo kuadrillakoak edo lagunak izan daitezke, baina ezinbestekoa izango da talde bakoitzean bi-lau heldu egotea, eta euskara ulertzeko gai izatea, bai ahoz zein idatziz. "Alde hori garrantzitsua da, begiraleek jarraibide batzuk ahoz esango baitituzte", diote elkartetik. Untzagan jasoko dute lehen pista eta hortik aurrera "hasiko da abentura dibertigarria. Herrian zehar ibiliko dira taldeak, nor iritsiko lehena helmugara". Amaieran parte-hartzaile guztiek jasoko dute saria eta sorpresatxo bat. Izen-ematea astelehenean hasi (apirilak 17) eta apirilaren 28an amaituko da. ... eta kitto! Euskara Elkartean eman daiteke izena, telefonoz (943200918) edo mezua bidaliz ongietorri@etakitto.eus helbidera. Astixan ere egin daiteke, bulegoan bertan edo telefonoz (943206231).

## Bi argazki erakusketa apirilean



Klub Deportiboaren argazkilaritza batzordearen eskutik, apirilean bi erakusketa ikusi ahal izango dira tabernetan: Eibarko Klub Deportiboaren tabernan "Darkteam" izeneko dago ikusgai eta Portalea jatetxean, berriz, Conxita Lopez argazkilaria lanak biltzen dituena.



## Artisten Elkarteko 40 kideren lanak Portalean

Martxoko azken egunean inauguratu zuten Eibarko Artisten Elkartekoek urteroko erakusketa kolektiboa, Portalean. Bertan, elkarteko kide diren 40 artistaren lanak ipini dituzte ikusteko moduan, apirilaren 30era arte. Erakusketa horrekin batera, areto berean "Gazte ARTEan", Eibar BHI-ko ikasleen lanen erakusketa ere bisitatu daiteke, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.



## MICE AIEnRuta ekimenean parte hartzeko aukeratu dute

Artisten, Interpreteen eta Jotzaileen Elkarteak (AIE) AIEnRuta ekimenaren 2023ko bigarren zikloan (irailetik abendura) parte hartuko dutenen izenak eman ditu jakitera eta Miren Narbaiza MICE eibartarra dago hautatuen artean. Aukeratu dituzten artistek lau kontzertu antolatuzko laguntza jasoko dute AIEren eskutik, eta hedabide espezializatuetan agertzeko komunikazio-plana garatuko dute. Horrela, Radio 3 irrati-kateko hiru programatan agertzeko aukera edukiko dute, irrati-kateak ematen duen sari berezia jasotzeko beta izateaz gain.



## Gipuzkoan Gazte Tourrek Andriu, Meler eta Oihan Vega ekarriko dizkigu bihar

Gipuzkoan Gazte Tour ekimenak geldialdia egingo du bihar Eibarren eta izen handiko hiru musika talde eta artista ekarriko ditu Untzaga plazara: Meler, Andriu eta Oihan Vega. Ekitaldia 20:00etan hasiko da Untzaga plazan eta doakoa izango da. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Departamentuak 16 eta 25 urte bitarteko gazteei eskaintzen dien aisialdi aktiboko eta partaidetzazko kultura-zirkuitu honek musika eta arte eszenikoen inguruko hainbat ekimen biltzen ditu eta, edizio honetan, probintziako lau herritan egongo da (Andoain, Ordizia, Tolosa eta Eibar).

### Kontzertuak eta Disko Festa Gaztea Untzagan

Programa herri bakoitzeko udalarekin elkarlanean garatzen da eta toki bakoitzera talde ezberdinak eramaten ditu, bertako artista gonbidatu batekin batera aritzeko, eta biharko musika-festarako Andriu eibartarra aukeratu dute. Andrea Garcia dago proiektu honen atzean eta herrian hainbatetan izan dugu bere ahots gozoaz gozatzeko aukera. Orain dela bi urte eta erdi 'Hoy vas a triunfar' lana kaleratu zuen eta zenbait telebista saiotan ikusi ahal izan dugu (Bago!az eta Top Star, besteak beste). Sare sozialetan bere abestiez gozatzeko aukera emateaz gain, beste artista batzuen abestien bertsioak maisuki lantzen ditu. Loren, Javi eta Jonathan gazteek osatzen duten Meler taldeak, bestetik, "pop energikoa" egiten duela diote taldekideek. Benidorm Fest 2023 lehiaketara aurkeztu zen, 'No nos moverán' abestiarekin, baina taldeak ezin izan zuen lehen finalerdikoa gainditu. Eta, kartela biribiltzeko, Oihan Vega DJ-a izango da Eibarko Gipuzkoan Gazte Tourreko zeremonia-maisua. Kontzertuen ostean, Disko Festa Gaztea! showcase-a eskainiko du.



## Sonia Gonzalez arituko da irakurleekin solasean

Datorren astean, martitzenean 19:00etan hasiko den "Idazlearekin harixa emoten" irakurle taldearen saioan Sonia Gonzalezek hartuko du parte, "Erreka haizea" liburuari buruz berba egiteko. Juan San Martin Eibarko Udal Liburutegiak... eta kitted! Euskara Elkartearekin elkarlanean antolatutako jarduera Portalean, 3. solairuko ikastaro gelan izango da eta saioa Ainhoa Aldazabalek zuzenduko du. Beti bezala, liburuari buruzko galderak edo iruzkinak egiteko aukera izango dute irakurleek.

## Jirabira jolasa Liburutegian

Udal Liburutegiak Jirabira jolasaren bigarren edizioa antolatu du. Astelehenean hasita, ekainaren 14ra arte egongo da parte hartzeko aukera. Ekimenarekin irakurzaletasuna sustatu nahi dute eta Lehen Hezkuntzako 2. mailatik aurrera har daiteke parte (Liburutegiko bazkidea izan behar da).



## "Carol" filmari buruzko zine forum saioa egingo da hilaren 21ean



Pagatxa Emakumeen elkar-teak, Eibarko Berdintasun zerbitzuarekin elkarlanean antolatutako zineforum saioa egingo da datorren barixakuan, 18:30ean, Portaleko areto nagusian. Oraingoan "Carol" Todd Haynesik zuzendutako filma emango dute eta, ondoren, solasaldia hasiko da. Sarrera libre da.



# 10

**DESBERDINTASUN  
DAUDE BI IRUDI  
HAUEN ARTEAN**



				8	2		
			9	4		7	
	6	2	7		9		3
9	8					6	
		4			3		
	3					2	8
2		3			7	6	9
	5			6	9		
		9	5				

U	S	R	P	E	R	C	I	O
R	P	Z	A	R	E	L	I	N
S	S	B	Z	I	L	E	V	Z
R	E	J	S	O	V	A	V	C
K	S	C	O	D	I	O	N	
S	S	N	I	L	L	O	S	R
R	I	S	C	H	A	R	E	
K	I	Z	O	C	H	E	N	

soluzioa

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

U	S	R	P	E	R	C	I	O
R	P	Z	A	R	E	L	I	N
S	S	B	Z	I	L	E	V	Z
R	E	J	S	O	V	A	V	C
K	S	C	O	D	I	O	N	
S	S	N	I	L	L	O	S	R
R	I	S	C	H	A	R	E	
K	I	Z	O	C	H	E	N	

soluzioa

		4		6		8	
1	8			2	3		
				5			4
8	7			5	2		
		3	6			7	1
4			6				
		8	7			6	2
3		8			9		

# Apirilak 14/20

## ZAPATUA 15

### ERREPUBLIKA

**10:00** Martxa errepublikarra, Ermutik (Orbe kardinalaren plaza) Eibarrera (Untzaga).

**11:30** Ekitaldi politikoa (IU-Ezker Anitza, PCE-EPK), bandera errepublikarra igotzea. Txaltxa Zelai (auditorioa).



### GUNE MOREA

**19:30/22:30** Sexu Bizi gune morea. Untzaga.



### MUSIKA

**20:00/22:00** Gipuzkoan Gazte Tour musika jaialdia, Andriu, Meler eta Oihan Vegarekin. Untzaga.



## DOMEKA 16

### TXIRRINDULARITZA

**10:15** VI. Eibarko Txirrindulari Elkarte Saria / Pneumax Sari Nagusia. Kadeteentzat. Untzagatik.  
**12:00** Amaiera: Urkizu.

## MARTITZENA 18

### TERTULIA

**10:30/12:00** Berriketan kasi: "Amelia Asensio, vivencias de sus padres como niños de la guerra en la URSS". Sarrera librea. Eibar K.E.-aren lokala (Ipurua)..



### LITERATURA

**19:00** Idazlearekin Harixa Emoten: Sonia Gonzalezen "Erreka haizea". Dinamizatzailea: Ainhoa Aldazabal. Portalea (3. batzartokia).



## EGUAZTENA 19

### HITZALDIA

**17:00/19:30** Atzeritartasun arautegiari buruzko hitzaldi irekia. Doan. Portalea (ikastaro gela, 3. solairua).

## EGUENA 20

### HITZALDIA

**10:00/12:00** "Sonrisas y lágrimas en el cine a través de pasajes incómodos de la historia", Igor Barrenechearen eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskola.

### BARREDROMOA

**18:00** Umorezko bakarrizketak: Aitor Bengoetxea, Aroia Burguete, Bego Altuna, Josu Lopez Gazpio, Nerea Blanco eta gehiago. Markeskua jauregia.



### AURKEZPENA

**19:00** Eibarko talde sozialistaren 125 urteko historiari buruzko dokumentala. Sarrera librea. Armeria Eskola.



## ERAKUSKETAK

### Apirilaren 23ra arte:

- "XXV. EGUEN ZURI" argazki-lehiaketako lanak. (Topalekua).

### Apirilaren 30era arte

- "DARKTEAM", argazki erakusketa. (Depor taberna)  
- CONXITA LOPEZ-en argazki erakusketa. (Portalea jatetxea)  
- "ANDRETXEA, GURE GELA PROPIOA", Eibarko 12 emakume artistaren lanak. (Andretxea).  
- "Gazte ARTEan". Eibar BHI. (Portalea).  
- "EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA". (Portalea).  
- "EIBARKO SOZIALISTEN 125 URTEAK". (Herriaren Etxea)).

## Eskualdeko Agenda

### SORALUZE

**15ean (ZAPATUA)**

### PUNK ROCK KONTZERTUA

**21:00/23:59 / Gaztetxea**  
Punk Anisado de Bilbao, Gonzuo (Gasteiz Crossover Punk) eta Cuervos.



# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **15ean:** 19:45, 22:30
- **16an:** 20:00
- **17an:** 19:30

**“En temporada baja”**  
UMOREZKOA



2022/Espainia/93'  
Zuzendaria: David Marqués  
Aktoreak: Antonio Resines,  
Edu Soto, Coque Malla  
**Komedia/Lagunartea/Kanping**

## 2 ARETOA

- **15ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **16an:** 17:00, 20:00
- **17an:** 19:30

**“Air”**  
DRAMATIKOA



2023/AEB/112'  
Zuzendaria: Ben Affleck  
Aktoreak: Matt Damon, Jason  
Bateman, Marlon Wayans  
**Biografikoa/Kirola/80 urteak**

## ANTZOKIA

- **15ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **16an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **17an:** 19:30

**“El exorcista del Papa”**  
BELDURREZKOA




2023/AEB/103'  
Zuzendaria: Julius Avery  
Aktoreak: Russell Crowe,  
Alex Essoe, Daniel Zovatto  
**Terrorea/Biografikoa/Erlijioa**

## ANTZOKIA

- **15ean:** 17:00
- **16an:** 17:00

**“Super Mario Bros. La peli”**  
ANIMAZIOZKOA



2023/AEB/92'  
Zuzendaria: Aaron Horvath  
**Abenturak/Haurrentzat/  
Bideojokoa**



## Fernando Valenciano Yebra

**3. URTEURRENA**  
2020/04/08

“Zu joan zinen, baina  
GURE BIHOTZETAN  
BIZIRIK ZAUDE”

- ETXEKOAK -





## Miren Begoñe Maiora Gonzalez de Audikana

**3. URTEURRENA**  
2020/04/13

“Zure alaitasuna  
eta maitasuna gure  
gogoan daude”

- ZURE FAMELIXA -





688 62 76 89  
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ELENE**, domekan 4 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **TELMO**, 8 urte bete dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Markelen partez.



Zorionak, **LUKEN!** Hillaren 5ian urtetxua bete zenduan! Jarraitu halako alaixa izaten! Patxo bat famelixa guztiaren eta, batez be, Markelen partez.



Zorionak, **LIZAR!** 10 urte betetzen dozuz gaur--eta! Ba hamar milla musu haundi zuretzako, etxeko danon partez. Jarraitu holan!



Zorionak, **MIKEL** Garcia Murgoitio! 8 urte, txapeldun! Jarraitu beti bezain alai. Musu potoluak famelixaren partez. Aupa, Mikel-PRO.



Zorionak, **LIBE!!** Hillaren 10ian 8 urte egin zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Nere-ren partez.



Ongi etorri, **TELMO**, hillaren 2ttik gure artian zagozelako. Desiatzen gengozen! Famelixa guztiaren partetik.



# Iragarki laburrak



943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Etxebizitza alokagai Deban uda eta udaberri sasoiari (hila-beteka edo asteka). 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi eder. Bista paregabeak. Igogailua 0 kotatik. 657795876 (arratsaldez).

### 1.2. Errentan

- Etxebizitza alokagai Eibar erdialdean. 688667994.
- Pisua alokagai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora begira eta oso argitsua. Guztiz berriztuta. Igogailuarekin. Bikote baten-dako aproposa. 637587823.
- Pisu txikia alokagai Eibarren. 2 logela. Igogailurik gabe. 500 euro. 627794822 / 687078777 (Whasappez edo arratsaldez).
- Pisua konpartituko nuke edo logela bat hartuko. 646131301.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak arratsaldez zaintzeko. Esperientzia eta Magisteritza ikasketekin. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 641456514.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 600836168.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 613287661.
- Mutila eskaintzen da tabernetan edo biltegietan lan egiteko. 747451984.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 643577589.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 747480623. Yanelis.
- Gizona eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 747480625. Daniel.
- Gizona eskaintzen da pintura, erreformak, eraikuntza eta iturgintza lanak egiteko. 747480622. Daniel Jose.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 642855788.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko (titulu sozio-sanitarioa) eta garbiketarak egiteko. Baita asteburuetan ere. 627230784.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631309160.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 624956340.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko (titulu sozio-sanitarioa). Baita asteburuetan ere. Orduka. 654210024.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 632980833.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 631722031. Fatima.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak (titulazioarekin) edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. 685724861.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 669181717.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxe-garbiketarak egiteko. 608401590.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko (tituluarekin). Esperientzia. 632893312.
- Neska eskaintzen da arra-

tsaldez umeak zaintzeko. 649025614.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Externa. 605402030.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin, baita ospitalean ere) eta garbiketarak egiteko. Orduka. 667060292.
- Neska euskalduna eskaintzen da etxeetan lan egiteko. Esperientzia handia. Euskal sukaldaritza tradizionala eta osasuneko. Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonentzako Arretako teknikari titulua. 699473761.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 675625362.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. 613073936...

### 4.2. Langile bila

- Odontologoa behar da klinika batean lan egiteko. Interesatuek curriculum-a bidali: hortzklínika.06@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

- Kontabilitate klaseak emateko pertsona behar da. Administrazio Kudeaketa modulorako. 669719349.

### 5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.



# osasun gida

## Okulistak

 **Recalde**  
 Clinica Oftalmológica  
 Oftalmologi Klinika

•Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

R.P.S. 23413

Plaza Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844  
[www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)



## Podologoak

**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOIA**

838200124  
 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria, 5 - 1. A  
**943 12 14 93 / 696 555 208**

## Psikologoak



**IRIGO UNANUE ARTECHE**  
[www.irigoianue.com](http://www.irigoianue.com)

- Merkataritza Taldeetako Aholkulari Sistemikoa
- Gestalt Terapeuta / Coach Ontologikoa
- Bokazio Orientatzailea

Unib. Pasaia, 7  
 672 682 133  
[info@irigoianue.com](mailto:info@irigoianue.com)

**Psikologia klinika eta Psikioterapia zentroa**

 **Oscar Mondragon Lili**  
 GOIZET ETA ARBETALDEZ

**Urkizu, 13 - behealdea**  
 Tel. 943206823 / 686859023



**BIDEBARRIETA, 48**  
**EIBAR**  
 943 203050

**ERDIKO KALE 54**  
**ARRASATE**  
 943 799746


**PODOLOGOIA**  
**Erdiko klinika**

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
 Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
 Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

**HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66  
 Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
[www.arratepsicoterapia.com](http://www.arratepsicoterapia.com)



**PODOLOGOIA**

**Maidier Lopez Etxebarria**

**Arragueta 2 Bis-B, Behea B**  
**Tñoa. 943 82 04 88**

65 Kolegiatu zbkia.



**943-206776**



# IRAZABAL

clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizenziatua.  
Euskal Herriko Unibertsitatea.  
Unibertsitate Aduxa Aho Kirurgian,  
Periodontiazari, implantologian.  
Leongo Unibertsitatea.  
Diplomatusa Aho Kirurgian.  
Bartzelonako Unibertsitatea.  
Hortz-Estetikari Diplomatusa.  
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.  
Hortz-Estetikari Diplomatusa.  
Autran Institutua, Bartzelona.  
Eteagabeko Formakuntza.  
New York-eko Unibertsitatea.  
Okuluzioan Graduondoa.  
Anibal Alonso Doktorea.


Asteleheneretik ostiralera:  
**8:00**etatik **22:00**etara  
Zapatuetan:  
**10:00**etatik **14:00**etara

## Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziario-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)